

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 345/2024 Foru Agindua, ekainaren 10ekoa, 2024ko helbideratutako zerga sarreraren egutegia aldatzea ezartzen duena

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 21eko 825/2023 Foru Aginduak ezarri zituen 2024an helbideratutako zerga sarreraren eta zerga sarrerak ez besteen likidazioko hamabosterik behingo egutegia.

2024ko helbideratutako zerga sarreraren egutegi horretan data okerrak atzeman direnez, zuzendu egiten dira.

Horregatik guztiagatik, eta ditudan ahalmenez baliatuz, hau

## XEDATZEN DUT

Bakarra. Aldatzea Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 21eko 825/2023 Foru Agindua, ezarri zuena 2024an helbideratutako zerga sarreraren eta zerga sarreraren eta zerga sarrerak ez besteen likidazioko hamabosterik behingo egutegia. Hona hemen helbideratze egutegian egindako zuzenketa:

Honako hau dioen lekuan:

KONTZEPTUA	ALDIA	AITORPENA EGITEKO AZKEN EGUNA	HELBIDERATZEA ENTREGATZEKO EGUNA	ZERGADUNAREN ZORDUNKETAREN ETA AFAKO ORDAINKETAREN BALIO EGUNA	AGIRIAK ENTREGATZEKO EGUNA
SOZETATEAK	URTEKOA	2024-07-23	2024-07-26	2024-07-29	2024-07-31
PLASTIKOZKO ONTZI EZ-BERRERABILG.	UZTAILA, GARAIZ KANPO	2024-09-10	2024-09-12	2024-09-13	2024-09-17

Honako hau jaso behar du:

KONTZEPTUA	ALDIA	AITORPENA EGITEKO AZKEN EGUNA	HELBIDERATZEA ENTREGATZEKO EGUNA	ZERGADUNAREN ZORDUNKETAREN ETA AFAKO ORDAINKETAREN BALIO EGUNA	AGIRIAK ENTREGATZEKO EGUNA
SOZETATEAK	URTEKOA	2024-07-26	2024-07-30	2024-07-31	2024-08-02
PLASTIKOZKO ONTZI EZ-BERRERABILG.	UZTAILA, GARAIZ KANPO	2024-08-26	2024-08-28	2024-08-29	2024-09-02

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 10a

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua  
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria  
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA